

1go LAN BILERA

Uztailak 1, larunbata
17:00etatik 20:00etara

KMO partehartze prozesuari hasiera emateko lehen bilera uztailak 1, arratsaldeko 17:00etatik aurrera Astra eraikinean egin zen. Honako dokumentu honetan bilera hark izaniko metodologia eta ateratako ondorioak jasotzen ditu.

METODOLOGIA

- 1. Sarrera**
- 2. Talde banaketa (gazteria eta kultura)**

GAZTERIA

Ezagutza dinamika
Beharren azterketa talde txikitan
Beharrak komunean jarri talde haundian
Beharren azterketa eta proposamenak talde txikitan
Behar eta proposameak komunean jarri talde haundian
Ebaluazioa

KULTURA

Ezagutza dinamika
Herriko ekimen sozio kulturalak identifikatu
Puntu ahulak eta indartsuak identifikatu talde txikitan
Puntu ahulak eta indartsuak komunean jarri talde haundian
Beharren identifikazioa talde haundian
Ebaluazioa

- 3. Luntxa**

Helburua: Gernika-Lumoko diagnostikoa egitea gazteria eta soziokulturari dagokionez.

GAZTERIA LAN TALDEA

Hauek dira identifikatu ziren beharrak

KULTURALA ETA ESPAZIALA: kultur espazio libre eta irekien beharra identifikatu zen, honekin batera talde bat baino gehiagotan Gernikan behar bezalako liburutegi-hemeroteka eta fonoteka bat behar dela eta mahai gaineratu zen. Musika taldeentzat lokalak eta kotxe-motorrentzat pista baten beharrak eta azaldu ziren.

KULTURA AISIALDIA: Ekimen kulturalak oztopo gehiegi pasa behar dituela nabarmentzen zen, honen motibatzaile nagusi gaur egungo aisialdi eredua eta eredu sozioekonomiko neoliberalak identifikatzen ziren, lokalen pribatizazioa, gazteen kontsumo neurrigabeak,... Beharren artean irrati eta telebista libre (erosi gabeko) batzuk behar azaltzen zen eta noski gure kultura eta aisialdia euskaraz bizi beharra.

JARRERA PERTSONALAK ETA BALORE SOZIALAK: gazteak gizarteko eskubide eta betebeharretatik kanpo sentitzen dugu gure burua, ez gara eta ez gaituzte kolektibo bezala tratatzen. Gure artean gainera indibidualismo koera izugarria dago, komunikazio falta. Beharrezko ikusten da adin tarte eta generazio ezberdinen arteko interakzioa. Gure ideiak defendatzeko borrokatu beharra dugu baina bestaldetik gure borroka gazte bezala kriminalizatua dago. Sormena,

irudimena, atrebentzia erabat desbalorizatuta daude. Beharrezkoa da ere etorkinen, integrazioa eta interakzioa

EREDU SOZIO EKONOMIKOA: bi gai nagusi nabarmen nabarmenak, bi eskubide urratuak, lan eta etxebizitza eskubideak. Prekarietatearen generazioa gara, emantzipazio eskubidea urratsen zaigun generazioa. Herrian sortu behar dira lanpostuak, kanpora joan beharrik gabe. Etxebizitzak ez daitezela izan espekulatzeko dirutrukea. Diru pulbikoa bideratu behar da gazteriara. Politika sozialak politika ekonomikoen gainetik egon behar dira, kapitalismoa, kontsumismoa eta balore indibidualistak gainditu nahi baditugu. Proposamena janleku popular bat sortze izan da.

SOZIO-KULTURAKO LAN TALDEA

Ondoren talde txikitik banatu eta herriko bizitza eta dinamika sozio kulturalak dituen puntu ahul eta indartsuak identifikatzeari ekin zitzaien.

PUNTU INDARTSUAK

- > Elkarrekin antolatutako ekintzek udalak antolaturikoak baino arrakasta handiagoa
- > Gernika bakearen eta kulturaren ikur izatea
- > Gernikaren nazioarteko proiektzioa
- > Kultur etxearen babes, bere mugekin
- > Ekintzen dibertsitatea, aniztasun handia
- > Astra gernikentzako ekimenak sozialki mugimendu eta dinamika handia ekarri du
- > Konpromisoa eta gogoia
- > Elkarrekin artean egondako elkarlana
- > Lizeoren eskaintza kulturala
- > Herri bizitza, pertxhartze handia

PUNTU AHULAK

Hauek taldeetan sailkatzen ahalegindu ginen:

- > Parte hartzeko dauden mekanismoak eta egiturak ez dute funtzionatzen, herritarren parte hartze falta dago gainera. Parte hartzen duten pertsonak beti dira berdinak eta askotan ekintza pararelo gehiegi egiten dira.
- > Espazio fisiko publiko, erabilera anitzekoak, beharren arabera flexibilitatearekin falta dira
- > Udalak espazio eta baliabide ekonomiko gehiago zuzendu beharko lituzke ekimen kulturalak sozialetara.
- > Talde eta kuadrilen arteko harreman falta
- > Difusio estrategia ezegokiak, kanpaina eskaxak.

- > Bizitza erritmoak ez digu uzten denborarik apenak asialdirako. Taldeetan errelebo falta dago eta kultur ekimenteren gazteen preferentziak ez dira kontutan hartzen
- > Pribatua publikoaren gainetik dago, jendearen preferentziak eta partehartzea sustatu gabe gauzatzen dira gauzak, udal eskaintzak ez du arrakatarik
- > Taldeetan eta taldeen artean komunikazio eta koordinazio falta dago
- > Jendeak soilik bere taldean antolatutako ekintzetan hartzen du parte. Prejuizio, estereotipo eta diskriminazio asko dago taldeen artean.
- > Eskualde ikustegi falta
- > Ez dago siniskeren eta ideien borroka eta mobilizaziorik
- > Hizkuntza normalizazioa
- > Sentsibilizazio falta imigrazioaren aurrean, ekintzetan ez da pluraltasun hau isladatzen, politika interkulturalen falta

PUNTU AHULAK ETA PUNTU INDARTSUAK AZTERTUZ EMAN BEHARREKO URRATSAK ETA SUSTATU BEHARREKO ESTRATEGIAK ZEINTZUK DIREN IDENTIFIKATZEARI EKIN ZITZAION, GUZTIOK ELKARREKIN TALDE HAUNDI BATEN:

- > Formula eta bide berriak sortu jendea dinamika soziokulturalera erakarteko
- > Euskaratik beste hizkuntza komunitateetara zubiak sortu
- > Taldeen arteko ekintza bateratuak, hurbiltasuna (estereotipoak eta aurreiritziak gaindituz) komunikazioan, espazio fisikoetan, koordinazio egiturak
- > Komunikazioa eta elkarlana zonaldeko beste taldeekin
- > Udalaren jarrera itxia eta joera pribatizatzailea gainditu, taldeen partehartzea eta eragile preferentziala izateko alternatiba landu, behetik gorako dinamika soziokulturala
- > Belaunaldi guztien arteko komunikazioa landu: gazteen dinamika eta beste eragileenak lotu, zubiak sortuz
- > Komunikazioa hobetu ekintzak ezagutarazteko, komunikabideak, lokalak, estrategia komunikatzaile berriak
- > Diru faltari alternatibak bilatu beharra
- > Taldeen eta jendearen dinamika eta bizimoduan egokitzen zaizkion espazio fisikoak, ordutegiak, egunak eta malgutasuna

2. LAN BILERA

Uztailak 15, larunbata
17:00etatik 19:00etara

KM0 partehartze prozesuari jarraipena emateko bigarren bilera uztailak 2, arratsaldeko 17:00etatik aurrera Astra eraikinean egin zen. Honako dokumentu honetan bilera hark izaniko metodologia eta ateratako ondorioak jasotzen ditu.

METODOLOGIA

1. **Sarrera**
2. **Talde banaketa (gazteria eta kultura)**

GAZTERIA

- > Ezagutza dinamika
- > Diagnostikoan oinarrituta identifikaturiko puntuen inguruko estrategiak diseinatu
- > Estrategiak talde guztiari aurkeztu eta aportazioak jaso

KULTURA

- > Ezagutza dinamika
- > Diagnostikoan oinarrituta identifikaturiko puntuen inguruko estrategiak diseinatu
- > Estrategiak talde guztiari aurkeztu eta aportazioak jaso

3. **Kulturak bere ondorioak gazteriarri aurkeztu**
4. **Gazteriak bere ondorioak kulturari aurkeztu**
5. **Ebaluazioak**

Helburua: diagnostikoan identifikaturiko landu beharreko puntuak edo ahulguneak kontutan hartuta, hauek gainditzeko edo lantzeko estrategiak planteatu, etorkizuneko lan ildoak izango direnak.

GAZTERIA LAN TALDEA

EREDU SOZIOEKONOMIKOA

GURE ESKU DAGOENA

- > norbere entrepresa sortu
- > Kontsumo ohiturak aldatu

GURE ESKU ETA BESTE BATZUEKIN

- > egoera salatu
- > Produktuak elkartrukatzeko guneak
- > "Urdaibain, busturialdean bizi eta lan" kanpaina, informazioa, sentsibilizazioa, batu!!!
- > Zer kontsumitzen dogu?
- > Lan taldeak sortu egoera salatzeko
- > Nekazaritza subironatasuna: urrikoa erabili, nekazariaren

- egoera, salatzeko, bertoko produktuak urte osoan
zehar kaleratu
- > Etxe 1 okupatu
 - > Baserriak etxebizitzaren aukera alternatibak bat

EZ DAGO GURE ESKU

Produktuen dimentsio soziala babestu
Lehentasunak: etxebizitza eta lan duina

JARRERA PERTSONALAK ETA BALORE SOZIALAK

GURE ESKU DAGOENA

- > Drogen informazio eskuratzea gazteetatik gazteetara
- > Astran ekintza ezberdinak egitea kuadrilen artean
- > Ezagutza tailerra
- > Lonjen mapa bat egitea
- > Hiztegi arrazizta detekatu eta liburuzka atera jentie kontzientzieu daixen
- > Pertsonalmente aurreiritzixek kentzen saiatu

GURE ESKU ETA BESTE BATZUEKIN

- > Etorquinekin elkartu eta ezberdintasunak ezagutu
- > Gazte asanbladie erreferente bihurtu gernikar gaztien artien:
- > Lonjen arteko koordinazioa lortu eta danok parte hartuz ekintzak preparatu
- > Jardunakdiaj (gun osoko ekintza ezberdinak)
- > Eorkinen koketiboagaz harreman zuzena: jendien parte hartzea errezteko informazioa elkar banatzie
- > Drogetan egon dan pertsona baten ahotik hitzaldi bat
- > Umien hezkuntza (eskola iraultzailea)

EZ DAGO GURE ESKU

KULTURA: ESPAZIOAK ETA AISIALDIA

GURE ESKU DAGOENA

- > Lonjen arteko koordinazioa
- > Beharrianak estran bete ahal izateko lan egin, basta de eskakeo
- > Ekintza bat talde ezberdinak inplikatur diseinatu (kontzertua, sarrera bertsolariak, diseinua artistak)
- > Toki publikoak erabili difusiorako: goiz eta arratsaldetan unibertsitateko autobusa, arratsaldetan kiroldegiko aldagelak, larunbatetan tabernatiko komunak, gimasioak, ileapaindegia, ostiral arratsalde-larunbat goizak eroski....
- > Udaletxeko, hau da, azpiegitura publikoak, okupatu erabilera konkretuetarako
- > Asanbladaren ezetzak justifikatuak
- > Lotsatia den jendeak bere ikuspegia paperetan idaztea
- > Udaletxea presionatu ekintza ezberdinen bidez (manifak, udaletxea okupatu, kanpainak)
- > Manifestazioak antolatu
- > Lotsak kendu, konfidatza falta
- > Panel haundi baten jarri asanbladaren ekintza guztien eta erabakien berri emateko
- > Asanbladetako ezetzen aurrean, ezertapen horien arrazoiak neurtu eta sentzukoak diren ikusi
- > Komunikazio lan taldea: erabki eta kanpainen gainean egongo dena, komuniakzio bide berri eta efektiboak landuko dituen: internet bidezko telebista
- > Beharrezko azpieguren zerrenda egin eta astrako zenbat gela akondionatu: proiektzioa gela, liburutegia, espozizio gela,...

>Ekintzak prestatzen adin guztiek kontutan hartu, era atraktiboan tokiak aldatuz

GURE ESKU ETA BESTE BATZUEKIN

>Asanbladetan proposamena
>Denbora dauen lekutik atara! Beti denbora falta es la eskusa
>Kanpaldi bat
>Dugun denbora gutxia, tabernan alferrik ez galtzera mentalizatu, hori lortzen dugunean... irabazi dugu
>Astran lokalak, musika, ikus entzutekoak (autogestionatuak, publikoak,...) aukera udalaren dirulaguntzagaz
>Liburutegia, hemerroteka, fonoteka: firma bilketa, konzenrazioak, itxialdiak, tlf eta e-mail ez agenda bat sortu, elakrteen guztiak, kultur leku pribatuak etab... gureki harremanetan jartzeko
>Ekintzak mugikorrek egin, herriko toki ezberdinak erabiliz, auzorik auzo, plazarik plaza
>Haur esko alternatiboa (kolektiboa, erantzunkizuna soziala, sormena, irauntza lantzen duena)
>Kutlur ekintzak, ekintza alternatiboak, talde kulturaren koordinadora (pribatuak barne)

EZ DAGO GURE ESKU

>Kultur leku pribatuak publiko bihurtu
>Haurrentzako psikomotrizitatea landu
>Kanpaina bat egin asteak 4 lan gun eta hiru jai egun izan ditzan
>35 orduko lan asteak

SOZIO-KULTURA LAN TALDEA

1. Bide berriak sortu jendea dinamika sozio kulturalera erakartzeko

Aste kultural bat urtian zihez eitzen dan lana kaleratzeko
Ekintza kulturaleri garrantzia eman, benetako bultzada
Bitarteko berriak kulturarako: aldizkariak, telebista,...
Kultur sarea sortu: egitaraua indartzeko, politika kulturala guk definitzeko. Kultur baliabideak eskuratzeko
Kultura berdefinitu kultur munduko pertsonaien hitzaldi informatiboak
Kultur eskaintza iraunkorra ohitura bilakatu
Herrien arteko erlazioa sustatu, ekintzak konpartitu

2. Euskaratik beste hitzkuntza komunitateetara zubiak sortu

Ekintza ezberdinetan euskara bultzatu
Alfabetatze kanpainak
Trukea: denbora bankua (1)

3. Taldeen arteko komunikazioa, hurbiltasuna: espazioetan, koordinazio egiturak, ekintza bateratuak

Koordinazio egitura bat sortu
Koordinadorak hitza eta bozka udalaren kultur politikan
Kulturaren aurrekontua partehartzailea izatea
Erresistentzia kaxa (errekurtsioena)
Jai egun bateratua

4. Gernikako zonaldeko beste taldeekin: komunikazioa,

elkarlana

Talde guztiak batzeko lokal bat
Taldeak alkarregaz doguzan harutemonak hobetzen ahalegindu
Taldeak elkar ezagutzeko dinamikak egin
Hartuemonak sendotzeko batzarrak egin
Talde guztiak gestinatzeko antolamendu edo komisio bat

5. Behetik gorako dinamika: udalaren jarrera itxia eta pribatizatailea gaingitu

Eragile preferentziala izateko alternatibak landu
Agintarien laguntza ekonomikoa (erregu barik)

6. Belaundaldien arteko komunikazioa: gazteen dinamikak eta beste eragilearenak uztartu

ASTRA espazio fisikoa guztiontzako
Jai batzorde bateratua eratu
Web agenda kulturala
Km0 antzeko asteburuak antolatu joku eta txapelketa ezberdinekin
Komunieran ditugun arazoak eta gaiak jorratzeko aukerak eratu
Talde bat eratu dinamikak proposatzeko
Talde dinamiztaileak hartu eman ezberdinak izan beharko luke beste talde batzuekin
Ekintzak ezberdinak egin elkarrekin

7. Estrategia komunikatzaile berriak: ekintzak eta alternatibak ezagutarazteko

Web gune bat
Horri informatibo bat
E-mail eta mesu laburren bidez
Irrati eta telebista librea
Panel publizitario gehiago eta handiagoak
Lonjen mapa
Kultur taldeen mapa

8. Diru faltari alternatibak bilatu

Elkarte bakoitzak kuota baty ordaindu gastuei aurre egiteko
Enpresei diru laguntzak eskatu
Jaialdiak antolatu (jatorduak, kontzertuak, rifak, erakusketak, tailerrak, txapelketak,...)
Produktuak sartu (kamisetak, pinak)

9. Espazio eta lokalak funtzioamendu malgua eta egokiarekin taldeen eta jedearen beharretarako

Kogestioa talde eta administrazioa artean